

**HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA**  
**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua**  
Ikasturtea: 2020-2021

**DERRIGORREZKO BIGARREN MAILAKO IKASLEEK DESGAITASUNA DUTEN  
PERTSONEKIKO JARRERAN AZTERKETA HEZIKETA FISIKOAN**

EGILEA: NEREA CALVO CEANURI  
ZUZENDARIA: AITOR ITURRICASTILLO URTEAGA

Data, 2021eko MAIATZAREN 20a

**AURKIBIDEA**

<b>LABURPENA</b> .....	3
<b>ABSTRACT</b> .....	4
<b>MARKO TEORIKOA</b> .....	5
<b>METODOLOGIA</b> .....	7
<b>Partehartzaileak</b> .....	7
<b>Prozedura</b> .....	7
<b>Neurketak</b> .....	8
<b>Analisi estatistikoa</b> .....	8
<b>EMAITZAK</b> .....	9
<b>EZTABAIDA</b> .....	13
<b>LIMITAZIOAK</b> .....	15
<b>ERREFERENTZIAK</b> .....	17
<b>ERANSKINAK</b> .....	19
<b>1. Eranskina</b> .....	19
<b>2.Eranskina</b> .....	20

## LABURPENA

Sarrera: Kirol eta jarduera fisikoarekin erlazioa daukaten desgaitasun bat daukaten pertsonen inklusioarekiko jarreraren inguruko gero eta informazio gehiago aurkitu dezakegu hezkuntza arloan. Helburua: Bide beretik, ikerketa honen helburua eskolan desgaitasunarekin kontaktu zuzena ez duten bigarren hezkuntzako ikasleen jarrera eta sinismenak aztertzea izan zen. Bigarren helburua aldiz, beraien bizitzako beste momentuetan edo esparrutan desgaitasunarekin kontaktu zuzena izan zuten eta izan ez zutenen ezberdintasunak aztertzea izan zen inklusioarekiko jarreretan. Metodoa: Ikerketa honetan, Bigarren Hezkuntzako 3. mailako 14 eta 16 urte bitarteko 35 ikaslek hartu zuten parte. Ikasle guztiek bete zuten Attitudes towards Inclusion in Physical Education Scale (ATIPES) 17 itemez osatutako galdetegia. Emaitzak: Item positiboetan ikusi egin zen gehiengoak Likert eskalan 5etik 4 baino gehiagoko puntuazioa lortu zutela, hain zuzen, lehenengo itemean 4,54-ko puntuazioa lortu zuten eta gainera ikasleen %88,6-ak *oso ados* edo *erabat ados* zeudela adierazi zuten. Aldiz, item negatiboetan puntuazio gutxiena lortu zuten, hain zuzen, 2 eta 2,91eko puntuazio tartean eta kasu honetan, 7. itemean adibidez, ikasleen %77,2ak *desados* edo *erabat desados* zeudela adierazi zuten. Ondorioak: Orokorrean ikasle guztien jarrerak eta sinismenak oso positiboak ziren eta badirudiru iraganean familian, lagunartean edo hezkuntza esparruan desgaitasunen bat zeukan pertsona batekin erlazioa eduki izanak ez duela bermatzen etorkizunean inklusioarekiko jarrera positiboagoak edukitzea. Horregatik, interesgarria izango litzateke interbentzio programak egitea gorputz hezkuntzako saioetan, hala nola, aste paralinpiko bat, ikasleek desgaitasunarekin kontaktua mantentzeko eta inklusioarekiko dituzten jarrerak hobetzeko.

*Hitz gakoak: inklusioa, jarrerak, sinismenak, heziketa fisikoa, desgaitasuna*

## **ABSTRACT**

**Introduction:** Articles about the inclusion of people with disabilities related to sports and physical activity are increasing. Despite this, most of them focus on education. **Objective:** The purpose of this article is to examine the attitudes and beliefs of secondary school students who do not have direct contact with people with disabilities at school. On the other hand, the second purpose of this study, was to examine the differences between those who had direct contact with people with disability at other times or areas of their lives and those who did not. **Method:** This study involved 35 students between the ages of 14 and 16 in the 3rd year of Secondary Education. All students completed a 17-item questionnaire Attitudes towards Inclusion in Physical Education Scale (ATIPES). **Results:** It was observed in the positive items that the majority got a score of more than 4 out of 5 on the Likert scale, in fact they got a score of 4.54 on the first item and this indicated that 88.6% of the students agreed or strongly agreed. On the other hand, in the negative items, they obtained the lowest score, between 2 and 2.91, and in this case, for example in item 7, 77.2% of the students indicated that they disagreed or completely disagreed. **Conclusions:** Overall the attitudes and beliefs of all students were very positive and it seems that having a relationship in the past with a person who had a disability in their families, a friend or at school does not guarantee more positive attitude towards inclusion in the future. Therefore, it would be interesting to conduct intervention programs in physical education sessions, such as a Paralympic week, to keep students in touch with disability people and improve their attitudes toward inclusion.

*Keywords: inclusion, attitudes, beliefs, physical education, disability*

## MARKO TEORIKOA

Inklusioa gaur egun gizartean eta hezkuntzan asko aztertu den kontzeptua da (Reina et al. 2014; Papaioannou, Evaggelinou, & Block, 2014; Dewsbury, & Brame, 2019) Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioaren (Nazio Batuak, 2006) 31. artikulua ezartzen du, desgaitasunen bat duten pertsonen aisirako, aisialdirako eta kiroleko jardueretarako aukera izan behar dutela, bai ingurune inklusiboetan, bai espezifikotan. Europar Batasunak inklusio soziala prozesu bat bezala azaltzen du, pobrezian eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen aukerak areagotzen dituen, bizitza ekonomiko, sozial eta kulturean parte hartze handiagoa eduki dezaten (Ríos et al., 2009). Hezkuntza arloan zehazki, inklusioak eskolek eta irakasleek ikasle guztien lorpenak, jarrerak eta ongizatea berdin baloratzen dituztela esan nahi du (Stidder & Hayes, 2013). Aldi berean, autore hauen ustez, pertsona bakoitzarentzat egokia den ikasketaren plan bat eman behar zaio, haien gaitasunak edozein direla ere, izan ere, haur bakoitzak bere zirkunstantzia pertsonalak alde batera utzita arrakasta lor dezakeela dioen nozioan oinarritzen dira.

Hezkuntza munduan, Espainian behar bereziak dituzten pertsonen eta horien artean desgaitasun fisiko, sentsorial edo adimen desgaitasun bat daukaten ikasleak ohiko eskoletan ikasten dute ahal duten guztietan, normalizazio eta inklusio printzipioak kontuan hartuz (Consejo economico y social 2004). Ohiko eskoletan Estatu Espainiarren 129,448 ikasle desgaitasunekin matrikulatuak daude, honek, ikasle guztien % 1,73-ari egiten dio erreferentzia (Ministerio de Educacion Cultura y Deporte, 2018). Hala ere, % 0,42-a eskola berezietan matrikulatuak daude. Desgaitasunen bat daukaten % 100-tik, % 36,93-ak desgaitasun intelektuala dauka, % 27,59-ak nortasunaren nahasmena, % 16,64-ak garapenaren nahasmena, % 8,34-ak urritasun fisikoa, % 5,17-ak entzumen urritasuna, % 3,01-ak urritasun anitza eta % 2,26-ak ikusmen urritasuna (Ministerio de Educacion Cultura y Deporte, 2017). Ikasle hauek ohiko eskoletara joatean eta batez ere, ikasle guztiak batera jardutean, desgaitasunik gabeko umeak desgaitasunen bat daukan beste ume batekiko funtzezkoak izan daitezke errespetua, duintasuna eta onespina izateko (Kalymon, Gettinger y Hanley-Maxwell, 2010; Obrusnikova, Block y Dillon, 2010). Honetaz gain, autore hauen arabera, desgaitasuna duen ikaslearekiko iritzi positiboa edukitzeak berarekin jolasteko intentzioa handitu dezake.

Badira hezkuntza sisteman inklusioarekiko kontrako argudioak dituzten autoreak ere, baina Block-ek eta Obrusnikova-k ez dute uste (2007) desgaitasunak daukaten ikasleek desgaitasunik gabeko ikasleentzako programak murriztu edo nabarmen aldatuko dituztenik. Gainera, oinarri zientifikoari erreparatuz, desgaitasunik gabeko ikasleengan inklusioaren ondorioak aztertu dituzten ikerketen emaitzak aurreko autoreekin bat datoz (Halami "ková & Válková, 2003; Obrusnikova, Block y Valkova, 2003; Vogler, van der Mars, Cusimano y Darst, 1998). Vogler et al. (2000)-en arabera, desgaitasunik gabeko eta desgaitasunak zeuzkaten ikasleen parte hartzea antzekoa izan zen

(% 65 eta % 60) eta ondorioztatu zuten, inklusioak ez zuela modu negatiboan eragiten desgaitasunik gabeko ikasleen heziketan. Gainera, pertsona guztiak elkarrekin jardutean onura alderdi sozialean garapen handia egon zen (Verdugo, & Rodríguez, 2013) eta aldi berean, behar bereziak zituzten ikasleek ohiko ingurune batean moldatzeko gaitasuna eta beraien gaitasun gorenetera heltzeko aukerarak handitu zituztela ikusi zen (Verdugo, & Rodríguez, 2013).

Desgaitasunik gabeko ikasleen sentsibilizazio eta normalizazioa handitu egin da desgaitasunak dauzkaten ikasleekiko (Hutzler, 2003; Kodish, Kulinna, Martin, Pangrazi y Darst, 2006; Kozub y Lienert, 2003; Kudlacek, Valkova, Sherrill, Myers y French, 2002; Tripp y Rizzo, 2006). Ezaugarri garrantzitsu bat inklusio ona emateko, ingurune sozial egoki batean egotea da, hau da, guraso, irakasle eta ikaskideak jarrera positibo bat erakustea (Reina, López, Jiménez, García-Calvo y Hutzler, 2011). Hori dela eta, ikasleekiko harremanak kontuan hartu behar dira eta taldeen arteko harremanaren teoriak (Allport, 1954) esaten duen bezala, baztertuak izateko arriskua daukaten taldeekiko aurreiritziak gainditu edo gutxitu daitezke hauekin kontaktu zuzena edukiz. Ondorioz, zenbat eta harreman estuagoa eduki desgaitasuna daukaten pertsonekin jarrera positiboagoa izango da, izan ere, aurreiritziak desagertarazi daitezke. Desgaitasunik ez dauzkaten ikasleak desgaitasunak daukaten ikasleekiko jarrera aztertzea garrantzitsua izan da inklusio egoki bat eman dadin (Abellán, Sáez-Gallego, & Reina, 2017; Bebetosos, Derri, Filippou, Zetou, & Vernadakis, 2014; Block, 1995; Hutzler, & Levi, 2008). Honen inguruan orain dela hainbat hamarkada aztertzen hasi zen, adibidez, Voeltz-ek (1980) desgaitasunak zeuzkaten umeekin harremanetan egon ziren desgaitasunik gabeko umeak, jarrera hobea erakusten zutela aurkitu zuten harreman hori eduki ez zutenekin alderatuz. Gaur egun teoria honen inguruan aztertzen jarraitu da (Binder et al., 2009; Sidanius, Levin, Van Laar, & Sears, 2008) eta gainera harremanaren teoria haurrek desgaitasunarekiko daukaten jarrerak aztertzeke erabiltzen hasi dira (Armstrong, Morris, Abraham, Ukoumunne y Tarrant, 2016). Dena den, ikerketa gehiagoren beharra dago desgaitasunarekin kontaktu zuzena izan duten eta ez duten ikasleek inklusioarekiko jarrerak aztertzeke eta ondorio zehatzagoak atera ahal izateko.

Heziketa fisikoko klase inklusiboetan dauden ikasleak, desgaitasun bat daukaten ikasleekin harremanetan eta lagun egitean, jarrera positibo bat garatuko dutela suposatu daiteke (Vignes et al., 2009). Baina inklusio hau emateko faktore ezberdinek eragiten dute, hala nola, generoa (chwab, 2017; Biesen, Busciglio y Vanlandewijck, 2006), adina (Lopez, Yanci, Iturricastillo, Rodriguez-Negro, 2018; Patel eta Rose, 2014 ) eta aurretik kontaktua edukitzeak edo ez (Reina, Hutzler, Iniguez-Santiago, Moreno-Murcia, 2018). Hain zuzen autore ezberdinek aztertu dute emakumea izatea (Block, 1995; Loovis y Loovis, 1997; Slininger, Sherrill y Jankowski., 2000; Tripp, French y Sherrill, 1995;), adin gutxiago izatea (Lopez, Yanci, Iturricastillo, Rodriguez-Negro, 2018) eta familian edo lagunaren batek desgaitasunen bat edukitzeak (Block, 1995; Reina, Hutzler, Iniguez-Santiago, Moreno-Murcia, 2018), jarrera positiboagoarekin lotura daukala. Generoaren artean dauden desberdintasunak hainbat autoreek aztertu dituzte (Schwab, 2017; Reina, Hutzler, Iniguez-Santiago, Moreno-Murcia, 2018;

Slininger, Sherrill y Jankowski, 2000; Biesen, Busciglio y Vanlandewijck, 2006) eta autore hauek emakumezkoak desgaitasunen bat dutenekiko jarrera positiboagoa erakusten dutela adierazi dute, nahiz eta badiren joera hau ikusi ez duten autoreak ere (Archie y Sherrill, 1989; Bebetos, Derri, Filippou, Zetou y Vernadakis, 2014). Adinararen arabera ere ezberintasunak daudela ondorioztatu daiteke eta horregatik ikerketak adin ezberdinetan burutu dira (Lopez, Yanci, Iturricastillo, Rodriguez-Negro, 2018; Patel eta Rose, 2014; Schwab, 2017; Reina, Hutzler, Iniguez-Santiago, Moreno-Murcia, 2018). Azkenik, familian, lagun edo gertuko norbait desgaitasunen bat daukanean jarreraren dauzkan ondoriok ere aztertu dituzte (Block, 1995; Block y Zeman, 1996; Slininger et al., 2000; Obrusníková, Block y Válková, 2003; Hutzler, & Levi, 2008). Momentu jakin baten desgaitasunarekin kontakturik izan ez duten ikasleen jarrerak dexente ikertu dira (Reina, Hutzler, Iniguez-Santiago, Moreno-Murcia, 2018; Abellan, Sanz, Reina, 2018), hala ere, ikasle hauek iraganean izandako kontaktuaren arabera ikerketarik ez dugu aurkitu.

Laburbilduz, lan honen helburua eskola esparruan desgaitasunarekin kontaktu zuzena ez zuten bigarren hezkuntzako ikasleen jarrera eta sinismenak aztertzea izan zen. Lan honen bigarren helburua, aldiz, beraien bizitzako beste momentuetan edo esparrutan desgaitasunarekin kontaktu zuzena izan zuten eta izan ez zuten ezberdintasunak aztertzea izan zen inklusioarekiko jarreretan.

## **METODOLOGIA**

### **Partehartzaileak**

Bigarren Hezkuntzako 3.mailako 14 eta 16 urte ( $n = 35$ ,  $14,65 \pm 0,69$  urte) bitareko 35 ikaslek hartu zuten parte ikerketan. Ikasle hauek 3 klase ezberdinetakoak ziren eta haietatik 24 neskak ( $n = 24$ ;  $14,71 \pm 0,69$  urte) ziren eta 11 mutilak ( $n = 11$ ,  $14,50 \pm 0,71$ ). Partehartzaile guztiek, ikerketan parte hartu aurretik prozedurari eta metodologiari buruzko argibideak jaso zituzten, eta ikerketan parte hartzearen arrisku eta onurak azaldu zitzaizkien (1.go eranskina). Parte hartzea erabat borondatezkoa izan zen. Ikerketak, Helsinkiko Adierazpenean (2013) markatutako gidalerroak aintzat hartueta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordearen (GIEB) onespena izan zuen (CEISH, M10\_2019\_058 kodea).

### **Prozedura**

Datu bilketa martxoaren amaieran burutu zen. Klase hasieran azalpen labur bat eman zitzaie ikasleei eta informazio orria banatu zitzaie. Ondoren, Attitudes towards Inclusion in Physical Education Scale (ATIPES) galdetegia korreo bidez bidali zitzaie google-formseko esteka baten bitartez. Galdetegia 10-15 minututan burutu zuten klasean bertan.

## Neurketak

Erabilitako tresna Attitudes towards Inclusion in Physical Education Scale (ATIPES) galdetegia izan zen (2. Eranskina). Galdetegi ofiziala 3 zatitan banatuta dago: lehengoa ikaslearen informazio orokorra izango da eta bai edo ez erantzun beharko dio galdera bakoitzari (adina, generoa, lagun edo familiar batek desgaitasunen bat daukan, desgaitasunen bat daukan klasekideren batekin klasean edo heziketa fisikoko klasean egon den eta jarduera fisikoren bat burutu duen desgaitasunen bat daukan pertsona batekin); ondoren, egoera hipotetiko bat azalduko da, non klasekide bat desgaitasun fisiko batekin daukaten eta amaitzeko, 17 item 3 eskala ezberinetan banatuak: sinismen konduktualak (item 1,4, 8, 11, 15 batazbestekoa), sinismen subjektiboak (item 2, 5, 7, 10, 13 batazbestekoa) eta azkenik, kontroleko sinismenak (item 3, 6, 9, 12, 14, 16, 17 batazbestekoa) (1.go taula). Galdetegi osoa 5 aukera zituen Likert eskala bidez erantzun zen (1= erabat desados; 2= desados; 3= ados; 4= oso ados; 5= erabat ados). Item negatiboen emaitzak inbertitu egin ziren, horrela galderen emaitzak galdera positiboen berdina gehitzen zuten. Item eta sinismenen batz bestekoak, frekuentziak eta portzentaiak aztertu ziren. Sinismenen kasuan aldiz batz bestekoak erabili ziren.

1.taula. Sinismen desberdinen definizioa.

<b>SINESMEN KONDUKTUALAK</b>	<b>SINESMEN SUBJEKTIBOAK</b>	<b>KONTROLEKO SINESMENAK</b>
Gizabanakoaren portaeraren ebaluazio globala, haren aldekoa izan daitekeelarik. Portaerarekiko jarrera positiboa edo negatiboa.	Gizabanakoaren sinismenak berarentzako garrantzitsuak diren pertsonak daukaten itxaropenei buruz, zuzenean presio sozialarekin lotuak. Beste pertsona batzuek pentsatzen dutena.	Gizabanakoaren sinismenak portaera jakin bat burutzeko errazten eta zailtzen dituzten faktoreei buruz: zelako erraza izango den jarduera jakin bat burutzea.

## Analisi estatistikoa

Emaitzak batezbesteko eta desbideratze tipiko (DT) bezala aurkeztu dira. Analisi deskribatzailea ere burutu da, partehartzaileek galdera edo item bakoitzean erantzundako emaitzen maiztasunak eta ehunekoak kalkulatu dira. Datuen distribuzio normala eta homozedastizitatea aztertzeko Saphiro-Wilks eta Levene frogak egin ziren. Emaitza hauek kontutan izanik (1. go galdera = *familian kontaktua izana edo ez*, 2. Galdera = *Klasean noizbait desgaitasunen bat daukan ikasleren batekin egon izana edo ez*, 3. Galdera = *Heziketa fisikoko klasean noizbait desgaitasunen bat daukan ikasleren batekin egon izana edo ez* eta 4. Galdera = *Kirol-jardueraren batean*



*desgaitasunen bat zeukan pertsona batekin parte hartu izana edo ez*) proba parametrikoen T froga independentea pasa zen baietz edo ezetz erantzun zuten partehartzaileen ezberdintasunak aztertzeko asmoz. Analisi estatistikoa Statistical Package for Social Sciences (SPSS Inc, 23,0 bertsioa, Chicago, IL, EE.BB.) programaren bidez egin da, esanahi estatistikoa  $p < 0,05$  en ezarriz.

## EMAITZAK

Ikasle bakoitzaren informazio orokorraren galderen emaitzak 2. taulan agertzen dira. Ikusi daitekenez ikasleen gehiengoak familian edo lagun artean desgaitasunen bat daukan pertsona batekin ez daukate kontakturik. Hezkuntza arloari dagokionez, aldiz, ikus daiteke ikastetxean bertan erlazio hori handitu egiten dela eta ikasleen erdiak baino gehiagok klasean desgaitasuna duen pertsonaren batekin kontaktua izan duela noizbait. Hala ere, kontutan hartzeko da, heziketa fisikoko klaseetan edo kirol arloan zentratzen garenean, desgaitasuna duen pertsonaren batekin kontaktua izan dutenak gutxiago dira kontakturik izan ez dutenak baino.

2.taula. *Ikasle bakoitzaren informazio orokorraren emaitza totalak*

---

### Galdera 1: Lagun edo familiarren batek desgaitasuna dauka?

---

Bai	Ez
11 (31,4 %)	24 (68,6 %)

---

### Galdera 2: Klasean noizbait desgaitasunen bat daukan ikasleren batekin egon zara?

---

Bai	Ez
19 (54,3 %)	16 (45,7 %)

---

### Galdera 3: Heziketa fisikoko klasean noizbait desgaitasunen bat daukan ikasleren batekin egon zara?

---

Bai	Ez
15 (42,3 %)	20 (57,1 %)

---

### Galdera 4: Kirol-jardueraren batean parte hartu duzu desgaitasunen bat zeukan pertsona batekin?

---

Bai	Ez
15 (42,9 %)	20 (57,1 %)

---

Galdetegi bidez eskuraturako item bakoitzeko emaitzak 3.taulan agertzen dira. Taula honetan, item bakoitzean erantzun zutenaren frekuentziak eta portzentaiak ageri dira, baita partehartzaile guztien batzbestekoa eta desbideratze tipikoa ere. Batzbestekoak aztertzerakoan ikusi daiteke, lehenengo itemean (Mikel / Aneren laguna izango nintzen klaseko beste bat delako) bezala, 5etik 4 baino gehiagoko puntuazioa atera dela, hain zuzen, 4,54-koa eta gainera ikasleen % 88,6-a *oso ados* edo *erabat ados* dagoela adierazi dute. Berdina gertatzen da 4. 6. eta 7. itemetan % 80arekin, 10.ean % 91,5arekin, 13.ean % 85,8arekin eta 15.ean % 74,3koarekin. Bestalde, puntuazio gutxien lortu dituzten itemak 2. 3. 5. 8. 16. eta 17. itemak izan dira, batzbesteko balio 2,00 eta 2,91ko puntuazio tartean egonik (Item 2 = Deseroso sentituko nintzateke irakasleak Mikel / Ane laguntzea eskatzen badit heziketa fisikoko klasean). Kasu honetan, gehiengoak *erabat desados* edo *desados* daudela adierazi dute, 2. itemean % 68,6arekin, 3.nean % 54,3arekin, 5.nean % 77,2rekin, 16.nean % 60, 17.nean % 71,4rekin eta azkenik 8.na % 48,6rekin. Azkeneko honetan puntuazioa banatuago egon zen izan ere puntuaketa ere altuagoa izan da gainerakoekin alderatuz, hain zuen, 2,91koa.

3.taula. *Attitudes towards Inclusion in Physical Education Scale (ATIPES) galdetegiaren emaitzak item bakoitzeko.*

Item	Erabat desados	Desados	Ados	Oso Ados	Erabat ados	B ± DT
1	0 (0,0 %)	1 (2,9 %)	3 (8,6 %)	7 (20,0 %)	24 (68,6 %)	4,54 ± 0,78
2	16 (45,7 %)	8 (22,9 %)	2 (5,7 %)	2 (5,7 %)	7 (20,0 %)	2,31 ± 1,57
3	8 (22,9 %)	11 (31,4 %)	8 (22,9 %)	0 (0,0 %)	8 (22,9 %)	2,69 ± 1,45
4	1 (2,9 %)	1 (2,9 %)	5 (14,3 %)	9 (25,7 %)	19 (54,3 %)	4,26 ± 1,01
5	15 (42,9 %)	12 (34,3 %)	3 (8,6 %)	1 (2,9 %)	3 (8,6 %)	2,00 ± 1,21
6	1 (2,9 %)	0 (0,0 %)	6 (17,1 %)	13 (37,1 %)	15 (42,9 %)	4,17 ± 0,92
7	1 (2,9 %)	1 (2,9 %)	5 (14,3 %)	10 (28,6 %)	18 (51,4 %)	4,23 ± 1,00
8	5 (14,3 %)	12 (34,3 %)	5 (14,3 %)	7 (20,0 %)	6 (17,1 %)	2,91 ± 1,36

9	1 (2,9 %)	1 (2,9 %)	15 (42,9 %)	9 (25,7 %)	9 (25,7 %)	3,69 ± 0,99
10	0 (0,0 %)	0 (0,0 %)	3 (8,6 %)	10 (28,6 %)	22 (62,9 %)	4,54 ± 0,66
11	8 (22,9 %)	5 (14,3 %)	6 (17,1 %)	6 (17,1 %)	10 (28,6 %)	3,14 ± 1,56
12	7 (20,0 %)	3 (8,6 %)	12 (34,3 %)	5 (14,3 %)	8 (22,9 %)	3,11 ± 1,41
13	0 (0,0 %)	3 (8,6 %)	2 (5,7 %)	15 (42,9 %)	15 (42,9 %)	4,20 ± 0,90
14	6 (17,1 %)	7 (20,0 %)	7 (20,0 %)	7 (20,0 %)	8 (22,9 %)	3,11 ± 1,43
15	0 (0,0 %)	2 (5,7 %)	7 (20,0 %)	8 (22,9 %)	18 (51,4 %)	4,20 ± 0,96
16	8 (22,9 %)	13 (37,1 %)	7 (20,0 %)	2 (5,7 %)	5 (14,3 %)	2,51 ± 1,31
17	13 (37,1 %)	12 (34,3 %)	8 (22,9 %)	0 (0,0 %)	2 (5,7 %)	2,03 ± 1,07

---

$B \pm DT$  = Batzbestekoa  $\pm$  desbideratze tipikoa  
 Item 1 = Mikel / Aneren laguna izango nintzen klaseko beste bat delako; Item 2 = Deseroso sentituko nintzateke irakasleak Mikel / Ane laguntzea eskatzen badit heziketa fisikoko klasean; Item 3 = Mikel / Ane atezain bezala jokatu dezake bakarrik futboleant; Item 4 = Pozik sentituko nintzateke Mikelekin / Anerekin jolasteagatik; Item 5 = Molestatuko litzaidake nire gurasoek Mikelekin / Anerekin jolastea eskatuko balidate; Item 6 = Mikelentzako / Anerentzako materiala moldatua egon beharko litzateke berarentzako errazagoa izateko; Item 7 = Mikel / Ane nire familiakoa izango balitz ez nuke arazorik edukiko nire lagunei kontatzeko; Item 8 = Mikelekin / Anerekin jolasteak talde lana zailduko luke; Item 9 = Saskibaloian jaurtitzeko distantzia eta kanastaren altuera gertuago egon beharko litzateke Mikelentzat / Anerentzat; Item 10 = Nire gurasoek Mikel / Ane laguntzea onartuko lukete; Item 11 = Mikel / Ane laguntzea saihestuko nuke klasean; Item 12 = Mikelek / Anek aukera gehiago eduki beharko lituzkete kanporatzeko jolasetan; Item 13 = Nire lagunei ez litzaieke molestatuko Mikelekin / Anerekin jolastea; Item 14 = Bidegabekoa izango litzateke Mikelek / Anek denbora gehiago edukitzea zirkuitu bat egiteko; Item 15 = Mikelek / Anek ondo pasatuko luke klasean gurekin jolasten; Item 16 = Mikelen / Aneren partehartzea klasearen dinamika motelduko du eta aspertu egingo gara; Item 17 = Molestatuko litzaidake Mikelen / Aneren erruz klasea motelago joango balitz.

Galdetegiaren batuketa totala eta sinesmen konduktualean, sinesmen subjektiboen, eta kontroleko sinesmenen batz besteko emaitzak 4.taulan agertzen dira. Bertan hasierako galderetan bai eta ez erantzun zutenen emaitzak ageri dira. Ez ziren ezberdintasun adierazgarririk ikusi eskola esparrutik kanpo zein eskola esparruan desgaitasunen bat zeukan pertsona batekin kontaktua eduki zuten eta eduki ez zuten ikasleen artean, ez totalean ez sinismenetan.

Tabla 4. *Attitudes towards Inclusion in Physical Education Scale (ATIPES) galdetegiaren emaitzak hasierako informazio orokorraren arabera.*

	<b>Totala</b>	<b>1. galdera</b>		<b>2. galdera</b>		<b>3. galdera</b>		<b>4. galdera</b>	
	<b>n = 35</b>	<b>Bai n = 11</b>	<b>Ez n = 24</b>	<b>Bai n = 19</b>	<b>Ez n = 16</b>	<b>Bai n = 17</b>	<b>Ez n = 18</b>	<b>Bai n = 15</b>	<b>Ez n = 20</b>
<b>Suma</b>	57,66 ± 7,53	58,64 ± 6,36	57,20 ± 8,09	56,16 ± 6,11	59,44 ± 8,79	56,53 ± 6,86	58,72 ± 8,16	56,53 ± 6,38	58,50 ± 8,34
<b>Sinismen konduktuala</b>	3,81 ± 0,62	3,85 ± 0,73	3,79 ± 0,59	3,66 ± 0,59	3,99 ± 0,63	3,62 ± 0,53	3,99 ± 0,66	3,93 ± 0,57	3,72 ± 0,66
<b>Sinismen subjetiboa</b>	3,46 ± 0,55	3,49 ± 0,45	3,44 ± 0,60	3,34 ± 0,50	3,60 ± 0,58	3,33 ± 0,49	3,58 ± 0,58	3,31 ± 0,54	3,57 ± 0,54
<b>Kontroleko sinismena</b>	3,05 ± 0,69	3,14 ± 0,76	3,01 ± 0,67	3,02 ± 0,56	3,07 ± 0,83	3,11 ± 0,68	2,98 ± 0,70	2,90 ± 0,49	3,15 ± 0,80

1. Galdera = Lagun edo familiarren batek desgaitasuna dauka? ; 2 . Galdera = Klasean noizbait desgaitasunen bat daukan ikasleren batekin egon zara? ; 3. Galdera = Heziketa fisikoko klasean noizbait desgaitasunen bat daukan ikasleren batekin egon zara? ; 4. Galdera = Lagun edo familiarren batek desgaitasuna dauka?

## EZTABAIDA

Azken urteetan, hezkuntza arloan, desgaitasunen bat daukan ikaslearekiko jarrerak eta sinismenak zelakoak diren asko ikertu da kontaktu zuzena izan duten eta ez duten ikasleen artean (Patel & Rose, 2014; Schwab, 2017; Reina, Hutzler, Iniguez-Santiago, Moreno-Murcia 1; 2019) baina ez ordea iraganean desgaitasunarekin kontaktua izanak desgaitasunarekiko jarreran eragina dutela aitortzen dutenak. Hori dela eta, lan honen helburua eskola esparruan desgaitasunarekin kontaktu zuzena ez zuten bigarren hezkuntzako ikasleen jarrera eta sinismenak aztertzea izan zen. Ikasleak galdetegiko item positiboetan 1, 4, 6, 7, 10, 13 eta 15. itemetan, balore altuenak atera zituzten, non, ikasleen % 74,3 baino gehiagok *ados* edo *erabat ados* zeudela adierazi zuten. Item negatiboetan aldiz, puntuazio baxuagoa lortu zuten, izan ere, gehiengoak *erabat desados* edo *desados* zeudela erantzun zuten, honen kasua da 2, 3, 5, 8, 16 eta 17. itemak. Lan honen bigarren helburua, beraien bizitzako beste momentuetan edo esparrutan desgaitasunarekin kontaktu zuzena izan duten eta izan ez dutenen arteko ezberdintasunak aztertzea izan da inklusioarekiko jarreretan. Aldagai independente hauen arabera ez ziren ezberdintasun esaguratsurik atera sinismenetan desgaitasun bat zeukaten pertsonaren batekin kontaktua izanda zeukaten ikasleen artean eta kontaktua inoiz eduki ez zuten ikasleen artean. Jarraian ikerketen emaitzak aztertuko ditugu.

Ikerketa ezberdinetan ikasleek desgaitasunen bat duten pertsonaren batekin kontaktua izatean haien sinismenak eta jarrerak aldatu eta orokorrean hobetu egiten direla ikusi da (Patel & Rose, 2014; Schwab, 2017; Reina, Hutzler, Iniguez-Santiago, Moreno-Murcia 1; 2019). Galdetegiko itemak aztertzerakoak ikusi dezakegu nola adibidez 8. eta 17. itemak aztertzen baditugu (*8 = Mikelekin / Anerekin jolasteak talde lana zailduko luke; 17 = Molestatuko litzaidake Mikelen / Aneren erruz klasea motelago joango balitz*) gehiengoak *erabat desados* edo *desados* daudela adierazi dute eta honek adierazi nahi digu klasean desgaitasunen bat daukan ikasleren bat egotekotan ez zutela traba edo oztopo bat bezala ikusi. Beste ikerketa batzuekin alderatuz, adibidez, Lopez et al., (2018) ikerketa erreparatuz antzeko item batekin alderatzekotan (*2 = because Maria / Mario needs help to play sports, he would slow down the game*) ikusi daiteke nola kasu honetan ere ikasleak jarrera positiboa adierazi dutela. Gehiago zehazteko desgaitasun bat zeukaten ikasleek eta ez zeukaten ikasleen arteko ezberdintasuna oso txikia zela ( $3,49 \pm 0,85$  vs  $3,25 \pm 1,02$ ;  $P > 0,05$ ;  $TE = 0,26$ , *txikia*), hau da, biek jarrera positiboa adierazi zuten. 1. itema alderatzen badugu (*1 = Mikel / Aneren laguna izango nintzen klaseko beste bat delako*) beste ikerketako 6. itemarekin (*6 = If Maria / Mario were in my P. E. class, I would talk to him and be his friend*) kasu honetan ere ikusi daiteke bietan jarrera positiboak adierazi dituztela ( $3,79 \pm 0,64$  vs  $3,67 \pm 0,72$ ;  $P > 0,05$ ;  $TE = 0,18$ , *xumea*). Balore deskribatzaile guzti hauek adierazten dute, ikasleek inklusioarekiko jarrera on bat izan dezaketela, item guztien batura maximoa 85 izanda batazbeste  $57,66 \pm 7,53$  atera zutelako (hau da, batura maximoaren % 68-a). Inklusioarekiko jarrera antzekoak baina zerbait altuagoak ikusi ziren Lopez et al (2018) lanean non

CAIPE-R galdetegia pasa ondoren, item guztien batura maximoa kontutan izanda, kasu honetan 28 puntu maximoa izanda, batazbestekoa  $22,52 \pm 3,93$  izan zen (hau da, batura maximoaren % 80-a). Inklusioarekiko jarrerak hobetzen jarraitzeko asmoarekin, beste ikerketetan ikusi den bezala, aste paralinpikoa bezalako ekitaldiek izan dituzten emaitza positiboak ikusita (Panagiotou, Evaggelinou, Doulkeridou, Mouratidou, & Koidou, 2008) baliteke interesgarri izatea horrelako interbentzioak egitea gorputz hezkuntzako saioetan.

Aurretik aipatu dugun bezala, desgaitasunik ez daukaten ikasleak desgaitasunak dauzkaten ikasleekiko jarrerak aztertzerako orduan hainbat faktorek eragiten dute, hala nola, adina (Lopez, Yanci, Iturricastillo, Rodriguez-Negro, 2018; Patel & Rose, 2014;), sexua (Loovis y Loovis, 1997; Slininger, Sherrill y Jankowski., 2000) eta desgaitasunarekiko kontaktuak (Block y Válková, 2003; Hutzler, & Levi, 2008). Kasu honetan aurretik desgaitasunen bat daukan pertsona batekin kontaktuak eduki zuten ikasleen artean eta eduki ez zuten ikasleen arteko ezberdintasunak zeintzuk ziren aztertzen saiatu ginen eta ikerketa honetan parte hartutako ikasleek ez zuten ezberdintasunik adierazi. Datu hauek bat datoz Lopez et al (2018) artikuluekin, non, CAIPE-R item generaletan ez zen ezberdintasunik izan kontatua eta ez kontaktua izan zuten ikasleen artean. Hala ere, item espezifikotan, gorputz hezkuntzara bideratutako itemetan ezberdintasun adierazgarriak eman ziren Lopez et al (2018) lanean, lan honetan ez bezala. Hau da, desgaitasunarekin kontaktua izan zutenek inklusioarekiko jarrera hobeak adierazi zituzten ( $15,26 \pm 3,31$  vs  $12,55 \pm 3,18$ ;  $P < 0,05$ ;  $TE = 0,84$ , *moderatu*). Literaturaren arabera, lan honetako emaitzak ez datoz bat orain arte ikerketa ezberdinak diotenarekin (Lopez, Yanci, Iturricastillo, Rodriguez-Negro, 2018; Panagiotou, Evaggelinou, Doulkeridou, Mouratidou, & Koidou, 2008) izan ere, Hutzler, & Levi, (2008)-ren ikerketan ikusi zen aurretik desgaitasunen bat zeukaten pertsonekin kontakturik eduki ez zuten ikasleek galdetegiaren balio baxuagoak erakutsi zituztela eta ondorioz jarrera negatiboagoak zeuzkatela. Galdetegiaren hasieran egindako galderen erantzunen arabera aurretik kontaktua eduki zuten ikasleak eta eduki ez zuten ikasleak bereiztu ziren eta ikus daiteke nola sinismen ezberdinetan ere emaitzak antzekoak izan ziren. Sinismen konduktualari dagokionez, ikaslearen portaeraren eboluzio globalean ikasi daiteke emaitza antzekoak lortu zituztela ( $3,85 \pm 0,73$  vs  $3,79 \pm 0,59$ ;  $P > 0,05$ ). Gainerako galderetan ere emaitzak antzekoak izan ziren (2.galdera =  $3,66 \pm 0,59$  vs  $3,99 \pm 0,63$ ;  $P > 0,05$ ; 3.galdera =  $3,62 \pm 0,53$  vs  $3,99 \pm 0,66$ ;  $P > 0,05$ ; 4.galdera =  $3,93 \pm 0,57$  vs  $3,72 \pm 0,66$ ;  $P > 0,05$ ). Sinismen subjektiboari dagokionez, ikasleen presio sozialaren baloreak aztertzerako orduan, hau da, beste pertsona batzuk beraietaz pentsatzen dutena zelan eragiten dien aztertzerakoan, ikusi daiteke baloreak antzekoak izaten jarraitzen dutela. Sinismenekin amaitzeko, kontroleko sinismena aztertzerakoan, hau da, portaera jakin bat burutzeko errazten edo zailtzen dituzten faktoreei buruz daukaten jarrera aztertzerakoan, kasu honetan ere emaitzak antzekoak izan dira. Hau balore baxuena izan zen eta honekin ondorioztatu dezakegu desgaitasunen bat daukan ikasleren batekin klasean egoteko orduan ez luketela arazorik edukiko, baina bai ikasleak agian oztupo bezala ikusi ditzazketela heziketa fisikoko

klaseak aurrera eramaterako orduan. Hala ere, kontuan hartu behar dugu, orain arte (Lopez, Yanci, Iturricastillo, Rodriguez-Negro, 2018; Patel & Rose, 2014) eginiko lan batzuk lehen hezkuntzako ikasleekin egin izan direla eta kasu honetan galdetegia DBH-ko 3.mailako ikasleei pasa zitzaien. Adina kontuan hartzeko faktorea ere bada, izan ere, adin gutxiagokoek orokorrean jarrera eta sinismenetan balore positiboagoak erakutsi dituzte (Schwab, 2017; Reina, Hutzler, Iniguez-Santiago, Moreno-Murcia 1; 2019). Sexuari dagokionez, ikerketa honetan ez zen ezberintasunik aztertu baina ikerketa askoren emaitzetan emakumeen jarrera orokorrean positiboagoa izaten dela ondorioztatu da (Schwab, 2017; Reina, Hutzler, Iniguez-Santiago, Moreno-Murcia 1; 2019; Slininger, Sherrill y Jankowski, 2000 ; Biesen, Busciglio & Vanlandewijck, 2006). Ondorioz, sexuaren araberako analisa ez egiteak ikerketa honetan eragina izan dezake, baita orain arte ikertutako partehartzaileen adina baino gehiago izateak ere. Hau dela eta, adina eta sexua kontuan hartu beharko lirateke etorkizuneko ikerketetan baita, desgaitasunarekin kontaktuan egoteak jarreraren iraupenean duen eraginean aztertzeko.

## **LIMITAZIOAK**

Ikerketa honen limitaziorik handiena partehartzaile kopurua izan da, izan ere, 35 ikaslek erantzun zuten soilik galdetegia eta ondorioak ateratzeko orduan konparaketa egiteko oso emaitza gutxi dira. Honetaz gain, heziketa fisikoko saioetan ikasleek ez zuten desgaitasuna zuen pertsonaren batekin kontakturik. Hau dela eta, desgaitasunen bat zeukaten pertsonaren batekin aurretik kontaktua zeukaten eta kontaktua ez zeukatenean arteko bereizketa egin zen eta ondorioz lagina oraindik eta txikiagoa izan zen. Gainera ikerketa askotan genero/sexu ikuspegitik ezberdintasunak topatu dira inklusioarekiko jarreretan (Susanne Schwab, 2017; Raul Reina, Yeshayahu Hutzler, María C Iniguez-Santiago, Juan A Moreno-Murcia, 2018; Slininger, Sherrill y Jankowski, 2000 ; Biesen, Busciglio y Vanlandewijck, 2006), baina kasu honetan lagina hain txikia izanda ezinezkoa zen ondorio batzuetara heltzea genero bereizketa egitekotan.

Etorkizuneko ikerketa baterako interesgarria izango litzateke partehartzaile kopuru handiago bat lortzea talde ezberdinak sortu ahal izateko eta hasieran aipatutako faktore ezberdinen arabera, hau da, genero, kontaktu eta adinaren arabera bereizketa egin ahal izateko. Horretaz gain, desgaitasunen bat duen pertsona batekin klasean jardutea ere interesgarria izango litzateke jarrerak eta sinismenak aztertzerako orduan. Hori dela eta, aste paralinpiko bat egitea, desgaitasuna duten kirolariekin kontaktua izatea, desgaitasuna daukaten pertsonak praktikatzen dituzte kirol modalitate ezberdinak ezagutzea... interesgarria izango litzateke. Interbentzio honekin desgaitasunak dauzkaten umeekin harremanetan egon diren desgaitasunik gabeko umeak, jarrera hobea erakusten dutela aztertzen duten autore ezberdinek (Binder et al., 2009; Sidanius, Levin, Van Laar, & Sears, 2008) esandakoa frogatu ahalko zen.

## **ONDORIOAK**

Ateratako emaitzak kontuan hartuta, ondorioztatu dezakegu derrigorrezko bigarren hezkuntzako heziketa fisikoko ikasleak desgaitasun bat daukan ikasleekiko jarrera edo sinismenak orokorrean positiboak izan zirela. Ikusi ahal izan zen, nola baloreak orokorrean altuak izan ziren eta gehiengo batek jarrera positiboa erakutsi zuela. Gainera galdetegiak pasa ziren momentuan ikasleek ez zeukaten desgaitasunen bat zeukan ikasleren batekin kontaktua eskola esparruan eta hala ere jarrerak positiboak izan ziren. Horretaz gain, aurretik edo eskolatik kanpo desgaitasunen bat zeukan pertsonaren batekin kontaktua eduki zuten eta eduki ez zuten ikasleen artean ez ziren ezberdintasunik topatu. Sinismenetan ikusi egin zen nola iraganean edukitako kontaktuak ez zuen eraginik izan eta baloreak antzekoak izan ziren aurretik kontaktua eduki zutenen eta eduki ez zutenen artean bai sinismen subjektiboetan, bai sinismen konduktualetan, baita kontroleko sinismenetan ere. Badirudi nahiz eta iraganean kontaktua izan, ez zen nahikoa izan kontakturik izan ez zuten ikasleen jarrerak baino hobetoak izateko. Ondorioz, baliteke beste ikerketetan ikusi den bezala, aste paralinpikoa bezalako ekitaldiek izan dituzten emaitza positiboak ikusita, interesgarri izatea horrelako interbentzioak egitea gorputz hezkuntzako saioetan ikasleek desgaitasunarekin kontaktua mantentzeko eta inklusioarekiko dituzten jarrerak hobetzeko.



## ERREFERENTZIAK

- Abellan, J., Saez-Gallego, N., & Reina, R. (2017). Explorando el efecto del contacto y el deporte inclusivo en Educacion Fisica en las actitudes hacia la discapacidad intelectual enestudiantes de secundaria. *RICYDE.Revista Internacional de Ciencias del Deporte*. doi: 10.5232/ricyde, 14(53), 233-242.
- Amichai-Hamburger, Yair, y McKenna, Katelyn Y.A. 2006. “The Contact Hypothesis Reconsidered: Interacting via the Internet”. *Journal of Computer-Mediated Communication*, vol. 11, (septiembre): 825-843. Doi:10.1111/j.1083-6101.2006.00037.x
- Bebetsos, E., Derri, V., Filippou, F., Zetou, E., & Vernadakis, N. (2014). Elementary School Children’s Behavior towards the Inclusion of Peers with Disabilities, in Mainstream Physical Education Classes. *Procedia - Social and Behavioral Sciences*, 152, 819–823. <http://doi.org/10.1016/j.sbspro.2014.09.327>.
- Binder, J., Rupert, B., Zagerfka, H., Funke, F., Kessler, T., & Mummendey, A. (2009). Does Contact Reduce Prejudice or Does Prejudice Reduce Contact? A Longitudinal Test of the Contact Hypothesis Among Majority and Minority Groups in Three European Countries. *American Psychological Association*. doi: 10.1037/a0013470
- Block, M. E. (1995). Development and validation of the Children’s Attitudes Toward Integrated Physical Education-Revised (CAIPE-R) inventory. *Adapted Physical Activity Quarterly*, 12(1), 60–77. <http://doi.org/10.1123/apaq.12.1.60>
- Block, M. E., & Obrusnikova, I. (2007). Inclusion in physical education: A review of the literatura from 1995-2005. *Adapted physical activity quarterly*, 24(2), 103-124.
- Dewsbury, B., & Brame, C. J. (2019). Inclusive teaching. *CBE-Life Sciences Education*, 18(2), 1-5.
- Espana. Subdireccion General de Estadisticas y Estudios, Secretaria General Tecnica, Ministerio de Educacion, Cultura y Deporte (2018). *Anuario de estadísticas deportivas 2018* (110-118). Madrid: BOE
- Hutzler, Y., & Levi, I. (2008). Including children with disability in physical education: General and specific attitudes of high school students. *European Journal of Adapted Physical Activity*, 1(2), 21–30.

- Hutzler, Y. (2003). Attitudes toward the participation of individuals with disabilities in physical activity: A review. *Quest*, 55(4), 347-373.
- Lopez, I., Yanci, J., Rodriguez-Negro, J. & Iturricastillo, I. (2018). Comparison of attitudes toward inclusion in primary school students in relation o the contact with physical disability or not in physical education sessions.
- Panagiotou, A. K., Evaggelinou, C., Doulkeridou, A., Mouratidou, K., & Koidou, E. (2008). Attitudes of 5th and 6th grade Greek students toward the inclusion of children with disabilities in physical education classes after a Paralympic education program. *European Journal of Adapted Physical Activity*, 1(2), 31–43.
- Patel, M. & Rose, J. (2014). Students´attitudes towards individuals with an intelectual disability. *Journal intellect disability*, 18(1), 90-103
- Pettigrew, T., Tropp, L., Wagner, U., & Christ, O. (2011). Recent advances in intergroup contact theory. *International Journal of Intercultural Relations*, 35, 271–280
- Reina, R. (2014). Inclusion en deporte adaptado: dos caras de una misma moneda. *Psychology, Society, & Education*, 6, 55–67. <http://doi.org/10.25115/psye.v6i1.508>
- Slininger, D., Sherrill, C., & Jankowski, C. M. (2000). Children’s attitudes toward peers with severe disabilities: Revisiting contact theory. *Adapted Physical Activity Quarterly*, 17(2), 176-196.
- Schwab, S. (2017). The impact of contact on students' attitudes towards peers with disabilities. *Research in developmental disabilities*, 62, 160-165.
- Tripp, A., French, R., & Sherrill, C. (1995). Contact theory and attitudes of children in physical education programs toward peers with disabilities. *Adapted physical activity quarterly*, 12(4), 323-332.
- Verdugo, M., & Rodríguez, A. (2013). Valoracion de la inclusion educativa desde diferentes perspectivas. *Revista Española sobre Discapacidad Intelectual*, 39(3), 5-25

## **ERANSKINAK**

### **1. Eranskina**

#### **INFORMAZIO ORRIA**

##### **Proiektuaren identifikazioa**

Izenburua: **Ikasleen jarrera desgaitasunak dauzkaten ikasleekiko heziketa fisikoko klaseetan.**  
Ikerketa hau gradu amaierako lana bezala aurkezten da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU/UPV).

##### **Ikerketaren helburua**

Desgaitasunekin kontaktu zuzena ez daukaten ikasleen jarrerak eta sinismenak aztertzea

##### **Parte hartze metodoa**

Ikerketan parte hartu nahi baduzu galdetegi sinple bat bete beharko duzu, 10 minututan beteko dena. Galdetegira link honen bitartez sartu zaitezke: [https://docs.google.com/forms/d/1Od-z2oDt6zMBVYW6\\_Wy7HCdcUOuZdT2ekciaoMDvaIc/edit](https://docs.google.com/forms/d/1Od-z2oDt6zMBVYW6_Wy7HCdcUOuZdT2ekciaoMDvaIc/edit)

#### **PARTEHARTZAILERAREN ESKUBIDEAK**

##### **Baimena**

Galdetegia betetzen baduzu, informazio orria irakurri eta onartzen duzula adierazten duzu eta galdetegia borondatez bete duzula adierazten duzu.

##### **Borondatezko eta doaineko klausula**

Zure parte hartzea ikerketa honetan ANONIMOA, borondatezkoa eta doainekoa da eta ez egitekotan ez du inongo kalterik edukiko zure kontra.

##### **Emaizta orokorrak eta indibidualak jakitearen eskubidea**

Ikerketan parte hartzen baduzu, eskubidea edukiko duzu emaitza orokorrak (publikazioak, etab.) eta indibidualak ezagutzeko. Ikertzaile nagusiarekin kontaktuan jarri beharko zara aurretik aipaturiko informazioa lortzeko ([aitor.iturricastillo@ehu.eus](mailto:aitor.iturricastillo@ehu.eus)).

##### **Konfidentzialtasun eskubidea**

Ikerketa honetan eskuratutako datuak soilik gradu amaierako lana egiteko erabiliko dira.

Zalantzaren bat badaukazu aurretik azaldutako prozedura bati buruz edo edozein galdera badaukazu, ez eduki zalantzarik ikertzaile nagusiari galdetzeko ([Aitor Iturricastillo](mailto:Aitor Iturricastillo), Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Portal de Lasarte, 71. 01007 Vitoria-Gasteiz. [aitor.iturricastillo@ehu.eus](mailto:aitor.iturricastillo@ehu.eus)).

## 2.Eranskina

### GALDETEGIA

"Anek/Mikelek zure adina dauka, hala ere, oinez edo korrika egiteko zailtasunak dauzka eta horregaitik gurpil aulkia erabiltzen du. Aneri/Mikeli zuri gustatzen zaizkizun jolas eta kirolataro jolastea gustatzen zaio, baina batzuetan zailtasunak dauzka eta erraz nekatzen da. Gurpil aulkia erabiltzean ezin ditu saltoak eta birak dauzkan jolasetara jolastu eta horretaz gain, baloi pisutsuak eta distantzi luzera eta altuera batera jaurtitzeko zailtasunak ere edukiko ditu, gurpil ahulkiaren desplazamendua baloiaren boteekin edo pasea jasotzearekin koordinatu behar duelako."

1.Sexua:

- Neska  
 Mutila  
 Ez dut erantzun nahi

2. Adina

---

3. Lagun edo familiar batek desgaitasunen bat dauka? (1.BAI / 2.EZ)

- 1  
 2

4. Klasean noizbait desgaitasunen bat daukan ikasleeren batekin egon zara? (1.BAI / 2.EZ)

- 1  
 2

5. Heziketa fisikoko klaseannoizbait desgaitasunen bat daukan ikasleren batekin egon zara? (1.BAI / 2.EZ)

- 1  
 2

6. Kirol-jardueraren batean parte hartu duzu desgaitasunen bat zeukan pertsona batekin? (1.BAI / 2.EZ)

1

2

	Erabat desados (1)	Desados (2)	Ados (3)	Oso ados (4)	Erabat ados (5)
1.Mikelen / Aneren laguna izango nintzen klaseko beste bat delako					
2. Deseroso sentituko nintzateke irakasleak Mikel / Ane laguntzea eskatzen badit heziketa fisikoko klasean					
3. Mikel / Ane atezain bezala jokatu dezake bakarrik futbolean					
4. Pozik sentituko nintzateke Mikelekin /Anerekin jolasteagatik					
5. Molestatuko litzaidake nire gurasoek Mikelekin / Anerekin jolastea eskatukobalidate					
6. Mikelentzako / Anerentzako materiala moldatua egon beharko litzateke berarentzako errazagoa izateko					
7. Mikel / Ane nire familiakoa izango balitz ez nuke arazorik edukiko nire lagunei kontatzeko					
8. Mikelekin / Anerekin jolasteak talde lana zailduko luke					
9. Saskibaloian jaurtitzeko distantzia eta kanastaren altuera gertuago egon beharko litzateke Mikelentzat / Anerentzat					

10. Nire gurasoek Mikel / Ane laguntzea onartuko lukete					
11. Mikel / Ane laguntzea saihestuko nuke klasean					
12. Mikelek / Anek aukera gehiago eduki beharko lituzkete kanporatzeko jolasetan					
13. Nire lagunei ez litzaieke molestatuko Mikelekin / Anerekin jolastea					
14. Bidegabekoa izango litzateke Mikelek / Anek denbora gehiago edukitzea zirkuitu bat egiteko					
15. Mikelek / Anek ondo pasatuko luke klasean gurekin jolasten					
16. Mikelen / Aneren partehartzea klasearen dinamika motelduko du eta aspertu egingo gara					
17. Molestatuko litzaidake Mikelen / Aneren erruz klasea motelago joango balitz					